

# Zergatik deitzen diote ahukateari "urre berdea"?

**Gaur egun, ahukatearen kontsumoa gora egiten ari da etengabe, eta horrek hainbat ondorio sortu ditu, ingurumenean nahiz gizartean. Gai hori abiapuntu, ariketa hauek egingo dituzu:**



- Gaiari sartzeko, galderei erantzun eta taldean komentatu.
- Erreportajea entzun ondoren, galderen erantzun zuzenak aukeratu.
- GERO ETA... -AGO(ak) egitura: entzungaitik abiatuta esaldiak osatu.
- Errezeta bat proposatu

## Zer dakizu ahukateari buruz?



Zein herrialderekin lotuko zenuke fruitu hau?

Badakizu munduko zer herrialdetan ekoizten den ahukate gehien?

Ahukatea onuragarria da osasunerako. Badakizue zer propietate dituen?

## Ahukate-ekoizpenaren ondorioak



Ahukatearen ekoizpenak eragiten dituen zenbait ondoriori buruzko erreportajea entzungo duzu. Entzun ondoren, beheko galderen erantzun zuzenak aukeratu.

<https://labur.eus/pwZG8>

### Ahukatearen kontsumo-hazkuntzari buruz hainbat datu eman dira. Zein da egia?

- Europa mailako ahukatearen kontsumoa % 40 handiagoa da.
- Estatu Batuetako herritar bakoitzak 30 kilo kontsumitzen ditu urtean, duela 8 urte kontsumitzen zenaren bikoitza.
- Duela 8 urte 15 kilo kontsumitzen zen herritar bakoitzeko eta gaur egun pixka bat gehiago.

### Ahukatearen produkzioa igotzeak zer ondorio izan ditu naturan?

- Ahukateak landatzeko lur-sailak asko handitu dira eta horrek pinu-basoen deforestazioa eragin du.
- Ahukatearen kontsumoak etengabe gora egin du.
- Narkoak nekazariei zerga bat eskatzen hasi dira beraiek ere ahukatea ekoizteko.

### Zertaz konturatu ziren Tancitaroko narkoak? Zer dio horretaz Ane Irazabalek?

- Ahukatearen ekoizpenak drogak baino diru gehiago ematen zuela.
- Metanfetamina produzituta, ahukatearekin baino diru gehiago lortuko zutela.
- Ez zuela merezi drogaren negozioarekin jarraitzea.

### Zer arazo dute Michoacaneko nekazariek bertako narkotrafikatzaileekin?

- Lur-sailak kendu dizkiete anfetamina produzitzeko.
- Ez diete ahukatea ekoizten uzten.
- Ahukatea ekoizten jarraitzeko, diru-kopuru bat eskatzen diete eta mehatxatzen hasi dira.

## Gero eta ahuakate-ekoizpen handiagoa

Entzundako erreportajeko hainbat esalditan GERO ETA... –AGO egitura agertu da, konparazioak denboran zehar egiteko. Irakurri beheko adibideak eta ondoren, amaitu beheko esaldia egitura hau erabilita. Horretarako, kontuan hartu erreportajearen adierazi diren ondorioak

### GERO ETA ...AGO

Egitura hau izenondo edo adizlagun batekin erabiltzen da.

- Dietistek gero eta gehiago iradokitzen dute produktu hau.
- Gero eta ahuakate gehiago ikusten dugu gosarietan.
- Gero eta irabazi gehiago dituzte ahuakate-ekoizleek .
- Gero eta larriagoa da Mexikoko giroa.
- Gero eta erabiliaagoa da ahuakatea gure errezetetan.

Ahozkoan, GEROZ ETA forma asko erabiltzen dugu, baina GERO ETA da forma hedatuena.

**Ahuakatearen ekoizpena eta balioa asko igotzearen ondorioz,**

Mexikoko baso autoktonoen kopurua...

.....

Kontsumitzaileen kopurua...

.....

Supermerkatuetako eskaintza...

.....

Nekazarien diru-irabaziak...

.....

Narkotrafikanteak dirua eskatzen hasi...

.....

## Errezeta bat

Aukeratu ahuakatearekin prestatuko zenukeen errezeta bat. Ez badakizu, bilatu interneten eta aukeratu zure gustukoena. Nahi baduzu, begiratu Eitb-ko orrialde honetan errezeta-adibide bat. Ondoren, proposatu errezeta zure ikaskideari, galdera hauen erantzunen bidez.

- Ahuakateaz gain ze beste osagai behar dituzu zure errezetarako?
- Gosaltzeko, bazkaltzeko... Zein otordutarako prestatuko zenuke?
- Osasuntsua al da?
- Errezetaren kaloria-neurria handia, txikia... zer da?
- Merkea al da errezeta? Ba al dakizu zenbat balio duen ahuakate kiloak?

Binaka adostu zuen proposamena eta ondoren, talde handian aurkeztu.

## Erantzunak

### Ahuakate-ekoizpenaren ondorioak

#### Ahuakatearen kontsumo-hazkuntzari buruz hainbat datu eman dira. Zein da egia?

Estatu Batuetako herritar bakoitzak 30 kilo kontsumitzen ditu urtean, duela 8 urte kontsumitzen zenaren bikoitza.

#### Ahuakatearen produkzioa igotzeak zer ondorio izan ditu naturan?

Ahuakateak landatzeko lur-sailak asko handitu dira eta horrek pinu-basoen deforestazioa eragin du.

#### Zertaz konturatu ziren Tancitaroko narkoak? Zer dio horretaz Ane Irazabalek?

Ahuakatearen ekoizpenak drogak baino diru gehiago ematen zuela.

#### Zer arazo dute Michoacaneke nekazariak bertako narkotrafikatzaileekin?

Ahuakatea ekoizten jarraitzeko, diru-kopuru bat eskatzen diete eta mehatxatzen hasi dira.

#### Ahuakatearen ekoizpena eta balioa asko igotzearen ondorioz,

Mexikoko baso autoktonoen kopurua...

(Mexikoko baso autoktonoen kopurua gero eta txikiagoa da.)

Kontsumitzaileen kopurua...

(Munduan gero eta ahuakate-kontsumitzaile gehiago dago.)

Supermerkatuetako eskaintza...

(Supermerkatuetako ahuakateen eskaintza gero eta zabalagoa da.)

Nekazarien diru-irabaziak...

(Nekazarien diru-irabaziak gero eta handiagoak dira.)

Narkotrafikantak dirua eskatzen hasi...

(Narkotrafikanteak gero eta diru gehiago eskatzen hasi ziren nekazariei.)

## Transkripzioa

MANU ETXEZORTU.- Gure gosariak, Olaia, aldatuz joan dira, eta hainbat eta hainbat gosaritan atentzia eman digu azkenaldian ahuakatea geroz eta presentago dagoela. Ahuakatea geroz eta gehiago ikusten dugu gosarietan.

OLAIA.- Horixe da. Taberna askotan ogia ahuakatearekin eskaintzen dute, eta dietistek ere geroz eta gehiago iradokitzen dute produktua.

Supermerkatuetan ere eskaintza geroz eta zabalagoa da. Estatu Batuetan, esaterako, herritar bakoitzak batez beste 30 kilo kontsumitzen ditu urtean, duela 8 urte 15 kilo ziren. Eta Europa mailan fruitu honen kontsumoa % 30 hazi da.

MANU ETXEZORTU.- Garbi dago mundu osoan indar handiz sartu dela ahuakatea. Eta lehen aipatu diguzu kontsumoak izugarri egin duela gora mundu osoan. Horrek izan al du ondoriorik produkzioan, Olaia?

OLAIA.- Ba hasteko, bai, Manu. Hasteko aipatu behar dugu Mexiko dela mundu mailako ekoizle nagusia. Mundu mailako produkzioaren % 30 Mexikon egiten da eta Estatu Batuetara saltzen denaren % 82 iristen da Mexikotik. Kontsumoak etengabe egin du gora eta horrek, noski, eragin zuzena izan du ekoizleengan. Esaterako, Mexikon bertan nekazari askok pinu-basoak basogabetu (deforestatu) dituzte euren sailak handitzeko, eta horrek, noski eragin zuzena izan du naturarengan.

MANU ETXEZORTU.- Eta ez soilik naturarengan, ezta?, Mexikon ere gizartean arazo larriak eragin ditu, bertan "urre berdea" bezala ezagutzen den fruitu honek produkzioak.

OLAIA.- Bai. Eta errealitate horren berri izan du Mexikon bertan Ane Irazabal gure lankideak.

MANU ETXEZORTU.- Gurekin da Ane Irazabal. Ane, egun on.

ANE IRAZABAL.- Kaixo, egun on.

MANU ETXEZORTU.- Ane, Mexikon izan zara ahuakatearen, urre berdearen inguruan dagoen negozioari buruz hitz egiteko. Michoacán estatuan izan zineten, Tancitaro izeneko udalerrian. Munduko ahuakate-ekoizle handiena da herrialde hori. Zein da, Ane, bertan aurkitu duzuen errealitatea. Kontaiguzu!

ANE IRAZABAL.- Esan duzuen bezala, Tancitaro da munduko ahuakate-ekoizlerik handiena, gehienbat bertan, Mexikon oro har, produzitzen den ahuakatearen gehiengo Amerikako Estatu Batuetara esportatzen da, eta gertatu zena zen, duela 10 bat urte, narkoak konturatu zirela nolabait ahuakatearen produkzioak drogak baino diru gehiago ematen zuela. Eta une horretan "familia michoacana" izeneko taldeak erabaki zuten Michoacanen metanfetamina egosten hastea, produzitzen hastea. Eta orduan ahuakate-produzitzaileengana joan ziren narkoak, eta esan zieten: "Bueno, guk zuei emango dizuegun babesaren truke, guk nahi duguna da gure kabuz hemen mentanfetamina egosten hastea". Eta esan dezakegu, konturatu zirela bertan zeuden bitartean ba ahuakate-produzitzaileek diru asko irabazten zutela eta diru asko egiten zutela ahuakatearen produkzioarekin. Eta orduan zer erabaki zuten narkoek? zerga bat eskatzen hastea, hau da, mexikarrek "kuota" deitzen diotena. Eta orduan, hasi zirena zen ba, ba produzitzaileei, ahuakate-produzitzaileei dirua eskatzen. Hasieran gutxi, baina poliki-poliki diru-kantitate hori gero eta handiagoa egin zen eta mehatxatzen hasi ziren produzitzaileak.

Beraz, ikusten ari garena une honetan da beste arazo, arazo handi bat, eta da kontrolik gabe, inolako kontrolik gabe landatzen direla ahuakate-zuhaitzak eta nolabait Mexikoko Michoacaneke estatuko baso autoktonoa desagertzen ari dela ahuakate-zuhaitzak landatzen ari direlako